

SAILKAPENA: **2.5 Taldearen osasuna.**

IZENA ETA ZENBAKIA:

Gure buruak zainduz.

HELBURUA:

Militantzia politikoaren ondorio diren arazoak (harremanak, botere asimetriak, parte-hartzea...) modu pertsonal eta kolektiboan lantzea. Arazo hauei konponbide autogestionatua emateaz gain, eztabaidei jarraikortasuna emateko bideak irekitzea.

DENBORA:

3 ordu.

LEKUA:

Garrantzitsua da, taldekideak borobil batean egoteko beharrezko espazioa beharko baitugu.

TALDEAREN BALDINTZAK

Pertsona kopurua: 10 gutxienez/20 gehienez

Taldearen egoera: Ezezagunen zein ezagunen artean egiteko aproposa.

Eztabaida batean, ezbaian edo erabaki bat hartu-ezinean ari garenerako gomendagarria.

AZALPENA:

*Sarrera (5 min): Zergatik egin nahi dugu tailer hau?

Sarrera adibidea: gogoratu dezagun gure militantzia ibilbidean gauzak egiten hasi ginenean, momentu ugari, gauza asko ikasi dugu, jende asko ezagutu dugu, baita maitatu ere. Baina gogoratu genitzake baita ere, asanblada eta bileretan sortu diren arazoak, gure funtzionatzeko moduen motor direnak. Baita gatazkak ere, gure harreman pertsonal eta politikoan, eta askotan gure ilusio eta konpromisoan eragin dutenak. Militantzia eta arazo mota hauek bidelagunak diren lez, gurea da hitza eta has gaitezen lantzen!

*Konfiantza jolasa (5min): ikus. Konfiantza lantzeko jolasak edo tailerrak berak gomendatzen dituen dinamikak.

*Dinamikaren azalpena, egoeren aurkezpena eta taldeak egitea (10min):

*Taldetan banatuko gara, eta taldeka militantzia politikoan suertatu ohi diren hainbat egoera ezberdin aztertuko dira (dinamizatzaileek aurrez gertatutako papertxoak ateratzen joango gara). Galdera hauei erantzungo zaie taldeka eta akta jasoko da:

-Noizbait bizi izan duzue horrelakorik?

-Noizbait sentitu al zarete horrela?

-Pentsatu azaldu diren pertsonai ezberdinetan eta saiatu bakoitzaren paperean ipintzen

-Arazorenbat al dago? Zein?

-Nola konpon genezake? Gure esku egon daitekeen tresna zerrenda bat egin, egoera ekiditeko edo arazoa konpontzeko.

*Egoeren eztabaida talde txikietan (90min)

*Atsedena (15min)

*Komunean jartzea(30min): taldeak berriz egin, eta talde ezberdinetako pertsonak nahastuko ditugu, landutakoa kontrastatu ahal izateko. Tarte honetan tresna komunak identifikatzen saiatuko gara.

*Tresnak (5min): konklusio amankomunak irudikatuko ditu talde bakoitzak, dinamizatzaileen laguntzaz.

*Tailerrari kritikak (10 min): Tailerraren ekarpen eta kritikak aipatuko dira taldean, pertsona bakoitzak ahal den laburren hitz eginaz. Beharrezkoa bada, dinamizatzaileek ere tailerraren helburuak gogoratuko dituzte.

*Auto-estima jolasa (10min): Taldea bitan banatuko da, erdia kanporantz begira jarriko da, eta beste erdia kiribil hori inguratzen barrurantz begira (pertsona bakoitzak beste bat izango du aurrez-aurre). Elkarki galdera pare bat egingo dizkiote: zer gustatzen zaizu nigandik? Zer egingo zenuke nirekin? (modu labur eta dinamikoan egingo da).

MATERIALA:

Aulkiak, boligrafoak, egoera ezberdinak irudikatuko dituen adibide sorta talde bakoitzentzat eta papelografoa.

OHARRAK:

Dinamizatzaileek aurretik ondo gertatu behar dute tailerra; talde txikietan lantzeko egoerak asmatu egin daitezke, adibidez:

- Parte-hartze eta funtzionamenduaren gaineko egoera:
- Ezin da egon pertsona horrekin asanbladan. Kritika guztietan erreberentatu egiten du. Gauza bat esan du eta ni ez nengoan ados, kontra joan naizenean fiera baten moduan jarri da.
- Bueno, Mikel okerragoa da, guztiaren gaineko iritzia ematen duela!

Edo dinamizatzaileentzako bertsio sakonago bat hemen aurkitu dezakezue, tailerreko atal bakoitzerako argibideak ere bertan aurki daitezke <http://primeravocal.org/cuidandonoscuidando-nuestras-cabezas/>

ITURRIA:

Geure buruak Zainduz (2011) Cuidándonos, cuidando nuestras cabezas. <<http://primeravocal.org/cuidandonos-cuidando-nuestras-cabezas/>> Tailerra.